



# **GOBERNU BILERA**

Prentsa-Txostena  
Erabaki nagusiak

## **CONSEJO DE GOBIERNO**

Dossier de Prensa  
Acuerdos destacados

**Vitoria-Gasteiz, 2019ko urtarrilak 29**

**Vitoria-Gasteiz, 29 de enero de 2019**

## Gobernantza Publiko eta Autogobernu

**GOBERNUAK “EUSKAL ENPLEGU PUBLIKOAREN LEGE-PROIEKTUA”  
ONETSI DU; EUSKADIKO HIRU ERAKUNDE-MAILETAN LAN EGITEN  
DUTEN 110.000 PROFESIOALEN JARDUERA ARAUTZEN DUEN TESTU  
AITZINDARIA DA**

- Asmo handiko testua da, integrala eta berritzailea; gainera, urrats oso handia da, Euskadiko administrazio publikoetan lan egiten duten langileen familia-eredu berrien inguruko kontziliazioaren, berdintasunaren eta errespetuaren neurriei dagokienez
- Lehenengo aldiz arautzen du langile publikoen lanbide-karrera eta enplegua finkatzeko prozesu bereziak sortzen ditu, dagoeneko sektore publikoan lanean urteak daramatzaten talentua aprobetxatzeko

Gobernu Kontseiluak, gaur, “*Euskal Enplegu Publikoaren Lege Proiektua*” onetsi du; arau berriak asmo handiz eta osorik eguneratzen du egungo *Funtzio Publikoaren Legea*, 1989tik 30 urtez indarrean daramana. Horrela, euskal araudia erabat modernizatzen da, Euskadiko administrazio publikoetan lan egiten duten ia 110.000 pertsonen errealitate berrira egokitzeko. Euskadiko administrazio publikoen barruan daude honako hauek:

- ✓ Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra, bere erakunde-administrazioa eta berezko izaera juridikoa duten gainerako erakunde instrumentalak.
- ✓ Lurralde historikoetako foru-administrazioak, beren erakunde-administrazioa eta berezko izaera juridikoa duten gainerako erakunde instrumentalak, aurretik aipatu den edozein administrazio publikoren mendekoak.
- ✓ Tokiko administrazioak, beren erakunde-administrazioa eta berezko izaera juridikoa duten gainerako erakunde instrumentalak, aurretik aipatu den edozein administrazio publikoren mendekoak.
- ✓ Euskal Herriko Unibertsitatea, administrazio eta zerbitzuetako langileei dagokienez baino ez.
- ✓ Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoa, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea, Lan Harremanen Kontseilua, Herri Kontuen Euskal Epaitegia, Euskadiko Kooperatiben Goren Kontseilua, Datuak Babesteko Euskal Agentzia eta Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoa, bai eta beste edozein erakunde parte-hartzaile, kontsultakoa, aholkularitzakoa edo kontrolakoa ere, aurreko administrazioen mendekoa, eta hura sortzeko legearen arabera bere funtzioak garatzeko independentea dena.

Lege berriak arlo publikoan lan egiten duten pertsona guztien lanbide-ibilbidearen alderdi guztiak arautzen ditu: pertsona batek *lan-eskaintza publikora* aurkeztea erabakitzen duenetik, erretirora arte. Eusko Jaurlaritzaren helburu nagusia enplegu-sistema publikoa antolatzeko eta arautzeko moduan

paradigma-aldaketa sustatzea da. Horretarako, Eusko Jaurlaritzak, hiru foru-aldundiekin eta EUDELekin batera, gaur, 200 artikuluko testua onetsi du. Artikuluak honela banatzen dira: 14 titulu, 33 xedapen gehigarri, 20 xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bat, 5 azken xedapen eta 3 artikuluko eranskin bat.

Eusko Jaurlaritzak, aste honetan bertan, *Lege Proiektu* hau Eusko Legebiltzarrari bidaliko dio, eta Josu Erkoreka Gobernantza Publikoko eta Autogobernuko sailburuak hitz egiteko eskatuko du, berezko ekimenez, Legebiltzarreko taldeei xehetasunak emateko.

## EMAKUME ETA GIZONEN ERABATEKO BERDINTASUNA

Eusko Jaurlaritzak emakume eta gizonen erabateko berdintasun eraginkorraren alde egiten du eta, hori dela eta, Legebiltzarrari kontziliazio-baimenen sistema aitzindaria proposatzen dio (**164. artikulua**), berdina emakumeentzat eta gizonentzat, berdintasunean oinarritzen den gizartean aurrera egiteko urrats handia da. Helburua administrazio publikoek eginkizun gidaria izatea da eta, horretarako, gizonak etxeko lanaren erantzunkide ere izan daitezten sustatzea. Jakina da gizonek seme-alaben zainketan duten inplikazioa funtsezko elementua dela emakumeak ahalduntzeko, beren garapenerako eta ongizaterako; horrela, jaiotza-tasa sustatzen da eta gizonen beren ongizatea bultzatzen da. Gainera, funtsezko elementua da genero-indarkeriaren prebentzioan.

Baina, gainera, Eusko Jaurlaritzak lehenengoz sartzen du arau batean gure gizartean dauden familia-eredu guztiekin errespetuzkoa den sistema, eta, aldi berean, LGTBI kolektiboarentzat erabat integratzailea eta inklusiboa den hizkera erabiltzea proposatzen du, pertsonaren sexua edo generoa alde batera utzita eta berdinean legezztatzen duelako:

- ✓ **Gurasoen baimenak**; berdinean emango zaizkie bikotea eratzen duten bi pertsonen, sexua eta eratzen duten familia-mota gorabehera. % 100ean ordaindutako baimenak dira, eta besterenezinak. 16 astekoak izango dira. Lehenengo 4rak aldi berean izan ahalko dira, baina gainerakoak bata bestearen ondoren hartu beharko dira; horrela, semea edo alaba gutxienez 28 astez eta gehienez 32 astez egon ahalko da gurasoen zaintzapean. Baimen horien “*jaiotza, adopzio, adopziorako zaintza, enplegu publikoaren oinarritzko araudian edo lan-araudian araututako harrera eta ordezkapenezko haurdunaldi kasuetan*” aplikatuko da. Baimen horrek aurretik “aitatasun” edo “amatasun” izenekoak subsumituko ditu; izan ere, bazterketa zekarten izendapen horiek, egungo familia-eredu berriei dagokienez.
- ✓ **Hamabi hiletik beherako alaba edo seme adingabeak zaintzeko baimenak**. Baimen hori 150 ordukoa da, eta gurasoen baimenari gehituko zaio. Bikotea eratzen duen bi kideetako edozeinek eskatu ahalko du, eta orduka edo lanaldi osoan hartu ahalko da. Era berean, baimena partekatu ahalko da, baina ez aldi berean. Baimen horrek orain arte “edoskitze-

baimen” izenez ezagutzen zena ordezkatzen du; izendapen hori desagertu egingo da, ez baita familia-eredu guztietarako inklusiboa.

- ✓ **Minbizia edo beste gaixotasun larri bat duen seme edo alaba adingabea zaintzeko baimena;** horren bidez, enplegatu publikoek lanaldia % 50 eta % 99 bitartean murriztu ahalko dute, erabakitzen dutenaren eta behar dutenaren arabera.
- ✓ **Lehen mailako familiartekoak medikuarenera laguntzeko baimena;** zuzeneko familiartekoei kontsulta, tratamendu eta miaketa medikoetara lagundu behar dietenei emango zaie, edo gaixotasun larriak dituzten adingabeak zaindu behar dituztenei. Baimen berri horiek *“gutxienez 8 orduko ordu-kreditua izango dute”*.

## ENPLEGU PUBLIKOA FINKATZEA

**Enplegu Publikoaren Lege Proiektuaren** bidez, halaber, bitarteko langileek administrazioan lanean urteak eman ondoren enplegua finkatu ahal izateko formulak sortzeko erronkari heldu nahi zaio. Eusko Jaurlaritzaren helburua da dagoeneko euskal administrazioetarako lan egiten duten milaka pertsonaren talentua aprobetxatzea eta, indarrean dagoen lege-esparruaren barruan, erakundeetan egonkortasuna bultzatzea. Horretarako, zenbait kolektiboren bitartekotasun-tasa altua murrizteko, Gobernuak atea ireki die enplegu publikoa finkatzeko prozesu bereziei; horrela, administrazio publikoetan lanean ari diren pertsonak urte hauetan lanean eta prestakuntzan berenganatu duten ezagutza aprobetxatu nahi da.

**Hemeretzigarren eta hogeigarren xedapen iragankorrak** ezartzen duten bezala, langile publikoen bitartekotasun-izaerak % 40 gainditzen duenean, euskal administrazio publikoek *“sartzeko txanda bereizia”* sortu ahalko dute, lanpostu horretan gutxienez bitarteko esperientzian 8 urte egiaztatzen duten pertsonentzat. Horrela, administrazioek *“behin eta salbuespen gisa deitu ahalko dute (...) beren kidego, eskala, espezialitate edo kategoriei dagozkien postu edo plazetan enplegu publikora sartzeko hautaketa-prozesuak egiteko, egiturazko plazetan aldi baterako enplegua finkatzeko beharrezko neurri gisa”*. *“Proba bakarra izango da, praktikoa, deialdi bakoitzeko postuen prozedura, eginkizun eta ohiko zereginekin zerikusia duena”*. Proba baztertzailea izango da, lehiaketa-oposizioaren prozesuetan.

## LANBIDE-KARRERA

**Euskal Enplegu Publikoaren Legeak**, halaber, langile publikoen eta lanbide-karreraren alderdi oso garrantzitsuak arautuko ditu. Helburua da postuaren lanbide-eginkizuna aitortu eta ordaintzea, langile publikoek gogobetetasunez egiteko bere lana eta, horrela, administrazioek ematen dituzten zerbitzu publikoen funtzionamendua ere eraginkorragoa eta efizienteagoa izateko. Horrela, legeak langile funtzionarioen lanbide-karreraren modalitateak proposatzen ditu (**85. artikulutik 93. artikulura**):

- ✓ **Lanbide-karrera bertikala: 87. artikulua** lanpostuak hornitzeko prozedura sortzen du eta, horren bidez, langile funtzionarioek egituran gora egin dezakete.
- ✓ **Lanbide-karrera horizontala: 88. artikulua** bilakaera arautzen du karrerako langile funtzionarioen lanbide-garapenaren eta ordainsariaren mailan, lanpostua aldatzeko beharrik izan gabe.
- ✓ **Lanbide-karrera mistoa: 86. artikulua** sistema aitzindaria ezartzen du; horren bidez, konbinatu egiten dira lanbide-karrera bertikalaren eta horizontalaren modalitateak.

Era berean, lehen aldiz, testuak “Zuzendaritza Publiko Profesionala” aitortzen du, prozedura publikoaren bidez eta merezimenduak eta gaitasunak balioetsita, langile publikoek zuzendaritzako postuak bete ahal izateko.

## KODE ETIKOA

Eusko Jaurlaritzak ***Euskal Enplegu Publikoaren Legea*** izango dena prestatu du, “Gobernamendu Ona”ren irizpide berriak eta zorrotzak aintzat hartuta, besteak beste, etika publikoarekin bat datozen balio eta jokabide batzuen bidez administrazio publikoen lana arautzeko gomendioa. Horrela, testuak ezartzen du arlo publikoetako langileek Eusko Jaurlaritzak onetsitako ***Langile Publikoen Etika eta Gobernu Onaren Kodearen*** oinarri diren printzipioak errespetatu beharko dituztela. Horretarako, Eusko Jaurlaritzak “*Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioeko Sektore Publikoko Enplegatuentzako Jokabide Kodea*” onetsiko du, **167. artikulua** ezartzen duen bezala.

## ENPLEGU PUBLIKOAREN KOORDINAZIO-BATZORDEA

Azkenik, eta nobedade gisa, Gobernuak proposatzen du “*Euskadiko Enplegu Publikoaren Koordinazio Batzordea*” eratzea, administrazio publikoen enplegu publikoaren arloan esperientziak trukatu eta irizpideak bateratzeko. Helburua irizpideak bateratzea da, euskal enplegatu publikoarentzat baterako politikak sustatzea eta Euskal Enplegu Publikoaren Behatokia sor dadin sustatzea.

**10. artikulutik 12ra bitartekoak** ezartzen duten bezala, “*Euskadiko Enplegu Publikoaren Koordinazio Batzordea*” hori honako 12 kide hauek eratuko dute: Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioeko 5 ordezkari, foru-administrazioetako 3 ordezkari (1 lurralde historiko bakoitzeko), toki-administrazioetako 3 ordezkari eta Euskal Herriko Unibertsitateko 1 ordezkari.

## Ogasun eta Ekonomia

### **GOBERNU KONTSEILUAK 2019RAKO PREMIAZKO AURREKONTU NEURRIEN LEGE PROIEKTUA ONETSI DU**

Gobernu Kontseiluak 2019. urterako Premiazko Aurrekontu Neurrien Lege Proiektua onetsi du gaur. 2018ko Aurrekontu Orokorren Luzapenaren osagarria izango da, behar bezala aplikatu ahal izateko lege maila izan behar duten neurriekin.

Erabat aurrekontuei buruzkoa izango den legea da, eta bere tramitazioa eta aplikazioa premiazkoa eta luzaezina dela ulertzen da, jasotzen dituen neurrien izaera kontuan izanda.

Proiektuak hartzen duen zenbatekoa 250 milioi euro ingurukoa da, eta gastuei erantzun ahal izateko finantzaketa, Herri Dirubideen Euskal Kontseiluak joan den urrian 2019rako aurreikusi zituen ekarpen handiagoetatik lortutako diru-sarreraren eta diruzaintzako soberakinen kargura joango da.

Proiektuan jasotzen diren neurriak hauek dira:

#### ***Ordainketak***

Euskadiko Autonomia Erkidegoko sektore publikoko erakundeen zerbitzura dauden langileen urteko ordainketa osoek %2,25eko igoera izango dute. Neurri horrek 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondoreak. Halaber, Jaurlaritzari ehuneko hori eguneratzeko baimena ematen zaio, oinarrizko legediak igoera handiagoetarako aukera ematen badu.

#### ***Eusko Legebiltzarra eta EHU/UPV***

Eusko Jaurlaritzak 2019rako izango duen aurrekontu zuzkidura 31.100.000 eurotan geratuko da (luzapenak 30.250.000 euro jasotzen zituen). Euskal Herriko Unibertsitateak, bere aldetik, 314.040.099 euro izango ditu, 2018ko luzapenean aurreikusitakoa baino 10.045.915 euro gehiago.

#### ***Diru Sarrerak Bermatzeko Errenta***

2019an, Diru Sarrerak Bermatzeko Errentaren zenbatekoak, bere modalitate guztietan, %3,5eko igoera izango du, 2018an jasotako zenbatekoekin alderatuta.

Hala ere, Errenta hori jasotzen duten pentsiodunen kasuan, igoeraren ehunekoa %4,5era helduko da.

Ondorioz, 2019ko ekitaldian, Diru Sarrerak Bermatzeko Errentaren zenbatekoak hauek izango dira:

Bizikidetz Unitatea	DSBE	DSBE	DSBE	DSBE
	<i>(hilean)</i>	<i>(urtean)</i>	pentsiodunak <i>(hilean)</i>	pentsiodunak <i>(urtean)</i>
1	667,05	8.004,60	765,34	9.184,08
2	856,55	10.278,67	956,67	11.480,04
3 edo gehiago	947,51	11.370,14	1.033,20	12.398,40

EAEko Aurrekontu Orokorren Lege Proiektuan aurreikusitako igoera %2,25ekoa zen 2019rako, baina Jaurlearitzak igoera indize altuagoak aplikatzea erabaki du, egoera zaugarrienean dauden kolektiboetarako.

### ***Ikastetxe kontzertatuak***

Lege Proiektuak, 2019ko aurrekontu proiektuan dagoeneko aurreikusita zegoen ikastetxe kontzertatuetako moduluak langileen osagaien eguneratzea jasotzen du. Osagai horiek, Hezkuntza Sailaren esku dauden unibertsitatetik kanpoko ikastetxe publikoetako langileen ordainketetarako ezarritako ehuneko berean handituko dira, hau da, %2,25a. Horrez gain, ehuneko hori, ekitaldian zehar sistema publikoan ari diren irakasleen ordainketak igo daitezkeen zenbateko berean igotzeko aukera ere aurreikusten da.

### **5/2017 Legearen Seigarren Xedapen Gehigarria baliogabetzea**

Neurri horren bitartez behin betiko ezabatzen dira familia eta lan bizitzako kontziliaziorako laguntzen minorizazioak. Une honetan, laguntza horien zenbatekoaren %5eko murrizketa eragiten dute.

Onespenarekin batera, Legebiltzarrari Lege proiektua irakurketa bakar prozeduraren bitartez izapidetzea eskatzea ere erabaki du Gobernu Kontseiluak, Eusko Jaurlaritzaren helburua ahalik eta azkarren onestea baita, neurri horiek guztiak martxan jarri ahal izateko.

## Kultura eta Hizkuntza Politika

### **EUSKO JAURLARITZAK 105.000 EURO BIDERATU DITU KOMIKI, ELEBERRI GRAFIKO ETA ILUSTRATUTAKO LIBURUEN SORKUNTZA BULTZATZEA XEDE DUTEN DIRU-LAGUNTZETARA**

- **Legealdi hasieran sortutako deialdi honen bitartez, ilustrazioari loturiko zazpi proiektu babestuko dira**

Eusko Jaurlaritzako Gobernu Batzordeak komiki, eleberri grafiko eta ilustratutako liburuen sorkuntza grafikoa bultzatzea xede duten diru-laguntzen deialdia onartu du gaurko bere bileran. Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak 105.000 euro bideratuko ditu, guztira, deialdi honetara, eta laguntzak bi modalitatetan banatuko dira. Alde batetik, 60.000 euro bideratuko dira komiki eta eleberri grafikoaren sorkuntza sustatzera. Bigarren modalitatearen bitartez, bestetik, 45.000 euro inbertituko dira ilustratutako album edo liburuen sorkuntza bultzatzeko.

Kultura Sustatzeko Zuzendaritzak 2017. urtean abiarazi zuen deialdi hau, talentua bultzatu eta arlo honetan Euskadin azkenaldian egin izan den lan bikaina sustatzeko xedearekin. Azken bi urtetan bezalaxe, deialdiak bi modalitate jasoko ditu aurtengoan ere:

- Lehen modalitatean 15.000 euroko lau laguntza emango dira, guztira, komiki edo eleberri grafikoak sortzea helburu duten ilustrazio-proiektuak diruz laguntzeko.
- Bigarren modalitatearen bitartez 15.000 euroko hiru laguntza emango dira, ilustratutako albumak sortzea helburu duten ilustrazio-proiektuak diruz laguntzeko.

Horrez gain, nabarmendu beharra dago deialdiak mekanismo ezberdinak aurreikusi dituela emakumeen eta ilustratzaile gazteen lana leheneste aldera. Honela, bi modalitatetan -komikiak eta ilustratutako albumak-, gutxieneko puntuazioa gaintu duten proiektuen artean diru-laguntza bat erreserbatuko da, gutxienez, 30 urtetik beherako sortzaileentzat eta beste diru-laguntza bat, gutxienez, emakumeentzat (30 urtetik beherakoentzat erreserbatutako diru-laguntza hori emakume batek lortuko balu, diru-laguntza bakar bat erreserbatuko da). Iazko ediziotik "ilustrazioaren kalitate artistikoa" (40 puntutik 50 puntura igaro zen iaz) eta "ilustrazioaren tratamendua" (10 puntutik 30era) atalek balorazio handiagoa dute.

Iaz 38 proiektu aurkeztu ziren, guztira, deialdira: 18 lehen modalitatara eta 20 ilustratutako albumen modalitatara.



## Segurtasuna

### **SAHARAKO ERREPUBLIKA ARABIAI DEMOKRATIKOAREN (SEAD) LAGUNEN ELKARTEARI JANTZIAK DOHAINIK EMATEA ONARTU DA**

Gobernu Bilerak, Segurtasun Sailak eskatuta, erabaki du Arabako Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoaren (SEAD) Lagunen Elkarteari dohainik ematea polizia-jantziak, Saharako poliziak polizia-lanetarako bakarrik erabiltzeko.

Ertzaintzaren prakak, jertseak, kaskoak, alkandorak, ehunak eta oinetakoak dira, jada deskatalogatuta daudenez zerbitzutik erretiratuta dauden arren Saharako poliziarentzat bere eginkizunak betetzeko baliagarriak izan daitezkeenak.

Saharako Arabiar herria segurtasun-lanetako jarduera-arloak egokitzeko prozesuan murgilduta dago. Lan horiek oso nekezak izaten ari dira gaur egun, besteak beste, zeregin horietarako dituen baliabide materialak eskasak direlako.

Hori guztia dela eta, Gobernu Bilerak baimena eman du adierazitako ondasunak elkartearen eskuetan dohainik jartzeko.

## Gobernanza Pública y Autogobierno

**EL GOBIERNO APRUEBA EL “PROYECTO DE LEY DE EMPLEO PÚBLICO VASCO”, UN TEXTO PIONERO QUE REGULA LA ACTIVIDAD PROFESIONAL DE LAS 110.000 PERSONAS QUE TRABAJAN EN LOS TRES NIVELES INSTITUCIONALES DE EUSKADI**

- **Es un texto ambicioso, integral y novedoso que, además, supone un paso de gigante en medidas de conciliación, igualdad y respeto a los nuevos modelos de familia del personal que trabaja en las administraciones públicas de Euskadi**
- **Regula, por primera vez, la carrera profesional del personal público y crea procesos especiales de consolidación de empleo para aprovechar el talento de quienes llevan años trabajando, ya, en el sector público**

El Consejo de Gobierno, celebrado hoy, ha aprobado el “*Proyecto de Ley de Empleo Público Vasco*”, la nueva norma que actualiza, de una manera ambiciosa e integral, la actual *Ley de Función Pública* que lleva en vigor casi 30 años, desde 1989. Supone la modernización completa de la normativa vasca para adaptarla a la nueva realidad de las casi 110.000 personas que trabajan en el conjunto de las administraciones públicas en Euskadi:

- ✓ La Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi, su Administración Institucional y los demás entes instrumentales con personalidad jurídica propia, dependientes de aquella.
- ✓ Las Administraciones Forales de los Territorios Históricos, su respectiva Administración Institucional y los demás entes instrumentales con personalidad jurídica propia, dependientes de cualquiera de las Administraciones públicas antes citadas.
- ✓ Las Administraciones Locales, su respectiva Administración Institucional y los demás entes instrumentales con personalidad jurídica propia, dependientes de cualquiera de las administraciones públicas antes citadas.
- ✓ La Universidad del País Vasco, en relación, exclusivamente, con su personal de administración y servicios.
- ✓ La Comisión Jurídica Asesora de Euskadi, el Consejo Económico y Social Vasco, el Consejo de Relaciones Laborales, el Tribunal Vasco de Cuentas Públicas, el Consejo Superior de Cooperativas de Euskadi, la Agencia Vasca de Protección de Datos y el Órgano Administrativo de Recursos Contractuales de la Comunidad Autónoma de Euskadi, así como cualquier otro órgano de naturaleza participativa, consultiva, de asesoramiento o de control dependiente de las anteriores Administraciones y dotado de independencia en el desarrollo de sus funciones por su ley de creación.

La nueva ley regula todos los aspectos del itinerario profesional de las personas que trabajan en lo público: desde que una persona decide presentarse a una *Oferta Pública de Empleo*, hasta su jubilación. El objetivo

principal del Gobierno Vasco es impulsar el cambio de paradigma en el modo de ordenar y regular el sistema público de empleo. Para ello, el Gobierno Vasco, conjuntamente con las tres diputaciones forales y EUDEL, aprueba, hoy, un texto con 200 artículos repartidos en 14 títulos, 33 disposiciones adicionales, 20 disposiciones transitorias, una disposición derogatoria, 5 disposiciones finales y un anexo de 3 artículos.

El Gobierno Vasco enviará, esta misma semana, este **Proyecto de Ley** al Parlamento Vasco y solicitará la comparecencia, a petición propia, del Consejero de Gobernanza Pública y Autogobierno, Josu Erkoreka, para dar los detalles a los grupos parlamentarios.

## IGUALDAD PLENA DE MUJERES Y HOMBRES

El Gobierno Vasco apuesta por la igualdad plena y efectiva de mujeres y hombres y, por ello, propone al Parlamento un sistema pionero de permisos de conciliación (**Artículo 164**), idéntico para mujeres y hombres, que suponen un paso de gigante en camino hacia una sociedad igualitaria. El objetivo es que las administraciones públicas ejerzan un papel tractor promoviendo que los hombres puedan corresponsabilizarse del trabajo doméstico. Está demostrado que la implicación de los hombres en el cuidado de hijos e hijas es un elemento clave para el empoderamiento de las mujeres, su desarrollo y bienestar, fomenta la natalidad y contribuye al bienestar de los propios hombres, además de ser un elemento clave en la prevención de la violencia de género.

Pero además, el Gobierno Vasco introduce, por primera vez en una norma, un sistema respetuoso con todos los modelos de familia que existen en nuestra sociedad y propone, a su vez, un uso del lenguaje absolutamente integrador e inclusivo del colectivo LGTBI porque legisla igual e independientemente del sexo o género de la persona:

- ✓ **Permisos parentales** que se otorgarán, por igual, a las dos personas que integran la pareja, independientemente del sexo y tipo de familia que integren. Son permisos 100% remunerados e intransferibles. Durarán 16 semanas. Las 4 primeras podrán ser simultáneas pero, el resto, deberá disfrutarse de manera sucesiva de modo que el hijo o hija pueda estar mínimo 28 y máximo 32 semanas al cuidado de ambas personas progenitoras. Este permiso se aplicarán en caso de *“nacimiento, adopción, guarda con fines de adopción, acogimientos regulados en la normativa básica de empleo público o en la normativa laboral y en casos de gestación por sustitución”*. Este permiso, subsume los anteriormente denominados de *“paternidad”* o *“maternidad”* que suponían una discriminación respecto a los nuevos modelos de familia.
- ✓ **Permisos por el cuidado de hijas o hijos menores de doce meses**. Este permiso es de 150 horas y se sumará al permiso parental. Podrá solicitarlo indistintamente cualquiera de las dos personas que integran la pareja y podrá cogerse por horas o jornadas completas. Así mismo, el permiso se podrá compartir pero no de forma simultánea. Este permiso sustituye al

hasta ahora denominado “permiso de lactancia”, denominación que desaparece por no ser inclusiva de todos los modelos de familia.

- ✓ **Permiso por cuidado de hija o hijo menor afectado por cáncer u otra enfermedad grave** por el que el personal empleado público podrá reducir su jornada laboral entre el 50 y el 99% según decida y necesite.
- ✓ **Permiso por acompañamiento al médico de familiares de primer grado** que se concederá a quienes necesiten acompañar a sus familiares directos a consultas, tratamientos y exploraciones médicas, o a quien tenga que cuidar de menores con enfermedades graves. Estos nuevos permisos “*tendrán un crédito horario mínimo de 8 horas*”.

## CONSOLIDACIÓN DE EMPLEO PÚBLICO

El **Proyecto de Ley de Empleo Público** responde, también, al reto de crear fórmulas para que el personal interino pueda consolidar el empleo después de años trabajando en la administración. El objetivo del Gobierno Vasco es aprovechar el talento de las miles de personas que ya trabajan para las administraciones públicas y facilitar, dentro del marco legal vigente, su estabilidad dentro de las instituciones. Para ello y con el objetivo de reducir la elevada tasa de interinidad de ciertos colectivos, el Gobierno abre la puerta a los procesos especiales de consolidación de empleo público y aprovechar, así, el conocimiento adquirido durante años de trabajo y formación de quienes ya trabajan en las administraciones públicas.

Tal y como establece la **Disposición Transitoria Decimonovena y Vigésima**, cuando la interinidad del personal público supere el 40%, las Administraciones Públicas Vascas podrán de crear un “*turno diferenciado de acceso*” para personas que acrediten un mínimo de 8 años de experiencia interina en ese puesto de trabajo. Así, las administraciones “*podrán convocar, por una sola vez y con carácter excepcional (...) la realización de diversos procesos selectivos para el acceso al empleo público a puestos o plazas correspondientes a sus distintos cuerpos, escalas, especialidades o categorías como medida necesaria para la consolidación del empleo temporal en plazas de naturaleza estructural*”. Será una “*única prueba, de carácter práctico, relacionada con los procedimientos, tareas y funciones habituales de los puestos de cada convocatoria*”. Será una prueba eliminatoria dentro de los procesos de concurso oposición.

## CARRERA PROFESIONAL

La futura **Ley de Empleo Público Vasco** también se ocupa de regular aspectos muy importantes del personal público como la carrera profesional. El objetivo es reconocer y remunerar el desempeño profesional del puesto para que el personal público realice su trabajo de una manera satisfactoria y, con ello, hacer más eficaz y eficiente el funcionamiento y la prestación de servicios públicos por parte de las administraciones. Así, la futura ley propone diferentes modalidades de carreras profesionales del personal funcionario (**Artículos del 85 al 93**):

- ✓ **Carrera profesional vertical:** el **artículo 87** crea un procedimiento de provisión de puestos de trabajo que permite al personal funcionario ascender en la estructura.
- ✓ **Carrera profesional horizontal:** el **artículo 88** regula la progresión en el grado de desarrollo profesional y remuneración del personal funcionario de carrera sin necesidad de cambiar de puesto de trabajo.
- ✓ **Carrera profesional mixta:** el **artículo 86** establece un sistema pionero que combina las modalidades de carrera profesional vertical y horizontal.

Igualmente, por primera vez, el texto reconoce la “Dirección Pública Profesional” para que, mediante procedimiento público y con valoración de los méritos y capacidades, el personal público pueda ocupar puestos de nivel directivo.

## CÓDIGO ÉTICO

El Gobierno Vasco ha preparado la futura **Ley de Empleo Público Vasco** teniendo en cuenta los nuevos y exigentes criterios de la “Buena Gobernanza”, entre ellos, la recomendación de regir el trabajo de las administraciones públicas mediante una serie de valores y conductas acordes con la ética pública. Así, el texto establece que las y los trabajadores de lo públicos deberán respetar los principios generales que inspiran el **Código Ético y de Conducta del Personal Público** aprobado por el Gobierno Vasco. Para ello el Gobierno Vasco aprobará un “*Código de Conducta para el Personal Empleado del Sector Público de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi*”, tal y como establece el **artículo 167**.

## COMISIÓN DE COORDINACIÓN DEL EMPLEO PÚBLICO

Finalmente, y también como novedad, el Gobierno propone crear una “*Comisión de Coordinación del Empleo Público de Euskadi*” para intercambiar experiencias y aunar criterios en materia de empleo público de las diferentes administraciones públicas. El objetivo es unificar criterios, promover políticas comunes para el personal empleado público vasco e impulsar la creación de un Observatorio del Empleo Público Vasco.

Tal y como establecen los **artículos del 10 al 12**, esta “*Comisión de Coordinación del Empleo Público de Euskadi*” estará formado por 12 integrantes: 5 representantes la administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, 3 de las administraciones forales (1 por Territorio Histórico), 3 representantes de las administraciones locales y 1 de la Universidad del País Vasco.

## Hacienda y Economía

### EL CONSEJO DE GOBIERNO APRUEBA EL PROYECTO DE LEY DE MEDIDAS PRESUPUESTARIAS URGENTES PARA 2019

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy el Proyecto de Ley de Medidas Presupuestarias Urgentes para el año 2019, que complementará la Prórroga de los Presupuestos Generales del 2018, con aquellas medidas que deben tener rango de ley para su correcta aplicación.

Se trata de una ley de naturaleza estrictamente presupuestaria cuya tramitación y aplicación se considera urgente e inaplazable, dada la naturaleza de las medidas que incluye.

La cuantía a la que asciende el proyecto de ley es cercana a los 250 millones de euros, y la financiación para poder atender gastos será con cargo a los ingresos obtenidos por las mayores aportaciones previstas para 2019 por el Consejo Vasco de Finanzas Públicas el pasado mes de octubre, así como con cargo a remanentes de tesorería.

Las medidas incluidas en el proyecto de ley son:

#### ***Retribuciones***

Las retribuciones anuales íntegras del personal al servicio de las entidades del sector público de la Comunidad Autónoma de Euskadi se incrementarán un 2,25%. Esta medida tendrá efectos desde el 1 de enero de 2019. Asimismo, se autoriza al Gobierno a la actualización de dicho porcentaje en el caso de que la legislación básica permita incrementos superiores.

#### ***Parlamento Vasco y UPV/EHU***

La dotación presupuestaria del Parlamento Vasco para 2019 queda establecida en 31.100.000 euros (la prórroga incluía 30.250.000 euros). Por su parte, la Universidad del País Vasco contará con 314.040.099 euros, 10.045.915 euros más de lo contemplado en la prórroga de 2018.

#### ***Renta de Garantía de Ingresos***

En 2019, la cuantía de la Renta de Garantía de Ingresos en cualquiera de sus modalidades se incrementará en el 3,5% sobre las cuantías percibidas en 2018.

No obstante, en el caso de personas pensionistas perceptoras el porcentaje de incremento llegará al 4,5%.

En consecuencia, las cuantías de la Renta de Garantía de Ingresos durante el ejercicio 2019 serán las siguientes:

Unidad de convivencia	RGI	RGI	RGI pensionistas	RGI pensionistas
	(mes)	(año)	(mes)	(año)
<b>1</b>	667,05	8.004,60	765,34	9.184,08
<b>2</b>	856,55	10.278,67	956,67	11.480,04
<b>3 o más</b>	947,51	11.370,14	1.033,20	12.398,40

El incremento previsto en el Proyecto de Ley de Presupuestos Generales de la CAE para 2019 era del 2,25% para ambos casos, pero el Ejecutivo ha optado por incluir unos índices superiores de incremento para los colectivos más vulnerables.

### **Centros educativos concertados**

El Proyecto de Ley incluye una actualización de los componentes de personal de los módulos de los centros educativos concertados que ya estaba prevista en el proyecto de presupuestos de 2019. Dichos componentes se incrementarán en el mismo porcentaje establecido para las retribuciones del personal de los centros docentes públicos de enseñanza no universitaria dependientes del Departamento de Educación, es decir, el 2,25%. También se prevé la posibilidad de incrementar dicho porcentaje en la misma cuantía en la que puedan incrementarse las retribuciones del personal docente público a lo largo del ejercicio.

### **Derogación Disposición Adicional Sexta de la Ley 5/2017**

Mediante esta medida se eliminan de manera definitiva las minoraciones de las ayudas para la conciliación de la vida familiar y laboral, que actualmente implican una reducción del 5% del importe de las mismas.

Junto con su aprobación, el Consejo de Gobierno ha acordado solicitar al Parlamento la tramitación del proyecto de ley por el procedimiento de lectura única, ya que el objetivo del Gobierno Vasco es que se apruebe cuanto antes de cara a poner en marcha todas estas medidas.

## Cultura y Política Lingüística

### **EL GOBIERNO VASCO DESTINA 105.000 EUROS A LA CONVOCATORIA DE AYUDAS PARA IMPULSAR LA CREACIÓN DE CÓMICS, NÓVELAS GRÁFICAS Y ÁLBUMES ILUSTRADOS**

- **A través de estas ayudas, que se crearon al comienzo de la legislatura, se apoyarán cuatro proyectos relaciones con la ilustración**

El Consejo de Gobierno ha aprobado en su sesión la convocatoria de subvenciones de este año dirigida a impulsar la creación gráfica de cómics, novelas gráficas o álbumes ilustrados. El Departamento de Cultura y Política Lingüística invertirá en esta convocatoria un total de 105.000 euros que se dividirán en dos modalidades. Por un lado, 60.000 euros se destinarán a impulsar la creación de cómics y novelas gráficas y, a través de la segunda modalidad, se invertirán 45.000 euros en apoyar la creación de álbumes o libros ilustrados.

La dirección de Promoción de la Cultura puso en marcha esta convocatoria en 2017 con el objetivo de impulsar el talento de las y los creadores vascos y el importante trabajo que en Euskadi se viene realizando en este ámbito. Al igual que en los dos años anteriores, este año se contemplan dos modalidades dentro de la convocatoria:

- La primera modalidad destinará un total de cuatro ayudas, de 15.000 euros cada una, a proyectos de ilustración que tengan como objetivo la elaboración de cómics o novelas gráficas.
- A través de la segunda modalidad se destinarán tres subvenciones, de 15.000 euros cada una, a proyectos de ilustración que tengan como objetivo la creación de álbumes o libros ilustrados.

Además, cabe resaltar que esta convocatoria prevé mecanismos con el fin de premiar la labor de las mujeres y de ilustradores e ilustradoras jóvenes. Así, en ambas modalidades, tanto en la de cómics como en la de álbumes ilustrados, entre los proyectos que hayan superado la puntuación mínima se reserva al menos una subvención para personas menores de 30 años y, asimismo, al menos otra subvención para mujeres (en caso de que la persona que acceda a esa subvención reservada para menores de 30 años sea mujer únicamente se reserva una subvención). Desde el año pasado se valora más la 'la calidad artística de la ilustración' (el año pasado se pasó de 40 puntos a 50), así como el 'tratamiento de la ilustración' (de 10 puntos se pasó a 30).

A la convocatoria del pasado 2018 se presentaron un total de 38 proyectos, 18 a la primera de las modalidades y 20 a la destinada a álbumes ilustrados.



## Seguridad

**APROBADA LA DISPOSICIÓN GRATUITA DE VESTUARIO A FAVOR DE LA ASOCIACIÓN DE AMIGOS Y AMIGAS DE LA REPUBLICA ARABE SAHARAI DEMOCRATICA (RASD)**

El Consejo de Gobierno, a instancias del Departamento de Seguridad, ha acordado disponer gratuitamente a favor de la Asociación de Amigos y Amigas de la República Árabe Saharaui Democrática (RASD) de Álava (Arabako SEADaren Lagunen Elkarte) de vestuario policial para ser destinado exclusivamente a labores policiales desempeñadas por la policía saharai.

Se trata de pantalones, jerseys, cascos, camisas, tejidos y calzado de la Ertzaintza ya descatalogados por lo que han sido retirados del servicio en base a su antigüedad y que, sin embargo, pueden contribuir a facilitar la realización de funciones para la policía saharai.

El Pueblo Árabe Saharaui se encuentra inmerso en la adecuación de las áreas de actuación comprendidas en las labores de seguridad, desempeño que en la actualidad, se realiza a duras penas, debido entre otros motivos a la precariedad de los medios materiales con los que cuenta destinados a estos fines.

Por todo lo expuesto, el Consejo de Gobierno ha autorizado la disposición gratuita a favor de la citada asociación de los bienes antes mencionados.